

Alex Txikonek buelta emon behar izan dau tontorra zapaldu barik

11. orrialdea

Sanjoseetako bertso saioa 17an

Hilaren 17an, arrastiko 19:00etan izango da aurten Igorreko Lasarte Aretan sanjoseetako bertso saioa. 4 bertsolarik egingo dabe bertsoan; Igor Elortza, Andoni Egaña, Jon Maia eta Maialen Lujanbio hain zuzen be. 80. hamarkadan zortzi bertsolari, gero sei eta orain bizitasun handiagoa emon guran lau arituko dira Lasarteko oholza ganean. **13. orrialdea**



Euskerazko metraje laburrak Areatza eta Igorren

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

160

2012ko martiaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Greba orokorrerako deialdia

Hiru greba deialdi desbardin dagoz, baina egun berean. Martiaren 29an greba orokorra izango da BEGITUREN eremuan, Euskal Herrian eta estaduan legez.

Hiru deialdi dagoz. Alde batetik sindikatu abertzaleak egindakoa, -honeek dira gure eremuan gehiengoa daukienak-, bestetik UGT eta CCOOek egindakoa eta hirugarrena CNTk egin dauana.

Batera joango ez diran arren, danak egun berean egitea ebatzi izana ontzat jo dabe sindikatuetakordezkariak.

Lan erreformaren kontra deitu dabe grebea. Izan be, sindikatuak eta gizarte eragileak azaldu dabenez, erreforma honegaz beharrak izan dauan babes sistema osoa deuseztatzen da. Podere osoa emoten jako enpresariari. Holan, beste neurri batzuen artean enpresariak behargina beharretik botateko, nahikoa izango dau behargina 9 egun

gaixorik egotea hile baten, edo hurrengo hileetan irabazi txikiagoak aurreikusten dituala esatea. Enpresariak berak ebatzi ahal izango dau gainera, soldatak jaistea eta lan baldintzak aldatutea.

Konbokatzaileak ohartarazo dabenez, sistema publikoa deuseztatzeke bidea zabalduen dau erreforma honek eta Administrazinoko langile larboralak, bitartekoak eta abar bota ahal izango dira aurrekontu nahikorik ez badago.

Beharrari babes kenduta eta sistema publiko osoan egingo diran murrizketak kontuan hartzean badoguz, ongizate estadia deuseztatzea dakar erreformak. Egoerea sano larria dala eta, sindikatu guztiak alkarregaz ez bada, greba orokorra behintzat batera egitea ebatzi dabe. **5. orrialdea**



Martiaren 29rako greba orokorra deitu dabe sindikatuak.

LEMOA

Aurrekontuak ez dira onartu



Lemoako aurrekontuak ez ziran onartu, EAJ-PNVk eta PSEk kontrako botoa emon ebelako. EAJ-PNVk ezezkoren arrazoia "negoziatorako borondaterik ez ebela sentidu" zala adierazo eban. Erabakiorra izan zan PSEren ezezkoa "S.D. Lemonarako 72.000 euroko diru partidea egoalako". **5. orrialdea**

ARRATIA

Elikadira subiranotasuna eta bardintasuna landu ziran Artean

Elikadura subiranotasuna eta bardintasanari bultzadea emoteko asmoz Artean, "Baserritar jakinduria eta teknologia" izeneko I. Andra Baserritarren Topaketea antolatu eban Etxalde martiaren 7an eta 8an. Etxalde nekazaritza iraunkorrerako mobimentua da. Artean Euskal Herri osotik etorritako 70 andra baserritarrek hartu eban parte. **8. eta 9. orrialdeak**



LEMOA

Cementos Lemonan mobilizazioak

Berrehun persona inguruk manifestazioa egin eban Cementos Lemonan aurkeztu dauan Enplegua Erreguleto Espedientearen kontra protesta egiteko. ELA eta LAB sindikatuak akordioa lortzeako behar jarraituten dabe eta "sano eskeintza ona ipini dabela mahai gainean" azaldu deutso BEGITURI Jabi Amorrortu LAB sindikatuakoak. **7. orrialdea**



KANTU HERRIKOIAK

JOSE MONDRAGOK

Jose Mondragok deko
katue krudela,
geuk bere ez daukule morena
hain baino argala.

Buztena be bazeukan
kana t'erdia luze,
egurrek ekarteko morena
balioko leuke.

Hogetamahiru erralde
zerbait gitxiago,
errotako pisuetan morena
pisiturik dago.

Gantzagie be bazeukan
ikaragarria,
iruliko laukela morena
errotako harria.

Narrue be bazeukan
izerea langoa,
zapata oriluak e[gl]iteko morena
alagalakoa.

Jose Mondragok

Iturria: Simona Intxaurbe Gorostiza (Zeanuri 1916).

1988an, Zeanurin, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Martiazen 12tik 18ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 19tik 25era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 26tik apirilaren 1era

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Saiburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.500 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Aurrekontu parte hartzaileak Artean nozko?

2011ko garagarrian Arteko Bilduk udalean aurrekontu parte hartzaileak egiten hasteko metodologiaren proposamena sartu eban. Botoa emon orduko alderdien arteko eztabaidaren aldekoak garanez, batzordean danon artean metodologia adostuteko helburuagaz sartu genduan txostena.

Lau hilabete, 120 egun, erantzunik jaso barik; ezelako adierazpenik ez mahaiko beste zinegotzien agoetatik; batzordea egiteko hitzordurik ez. Parte hartzeari, herritarren berbeari, lekua kendu deusko Arteko Udal Gobernuak.

Egindakoa justifiketako Arteko etxeetara 5 puntuko galdetegia agindu eban, udaletxean buzoia ipini, eta hortxe aurrekontu parte hartzaileak! Ganera, porzentajeak atera eta beste herrietakoak konparetako ausardia izan dau alkateak, % 11ko partehartzea (33 galdetegi buzoian), Igorreko

% 2ko partehartzearen aurrean (7 auzo batzar, 2 foro, 250 herritar). Diferentzia garbia da.

Gure herriko alkateak ez dau gura herritarrai abotsik emotea, poderea gura dau. Udalean gitiengoagaz gobernetan egon arren, gehiengo absolutua izango baleu moduan jokutzen dau, Bilduk sartutako mozinoak zentsuraz, esate baterako.

Zezeilaren 22an deitutako ezohiko plenoan PNVk egindako aurrekontuak bozkatu ginduzan: 3 alde eta 4 kontra. Ez dira PNVren 2012rako aurrekontuak onartu; baina alkatea pozik dago 2011ko aurrekontuen prorrogeagaz. Ez dakizue lanaldi erdiagaitik 24.000€ kobretan jarraituko dauala?

Batzuetan entzuten ez zaituenagaz berba egitea nekagarria dan arren, gure herrian ezkerretik politikea egiten eta bestelako ereduak lau haizetara zabalduten segiduteko asmoa daukagu; txori kaiolatuak askatasunari kantetan deusien moduan, libreak hegan egiten dabe eta.

ARTEAKO BILDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Erretratua



Erretratu berbea gaztelaniatik hartutako mailegua da, eta pinturarean eta fotografiaren bidez lortutako irudia adierazoten dau, batez be personak badira irudian agertzen diranak. Hau da gaur dakarguna, Diman 1920. urtean ateratako argazki zaharra. Eta "erretratua atera" esaten jako Arratian argazki bat egiteari. Erretratuertako makinea, erretratu... danak dira familia batekoak.

ERETXIA

Amaren eta alabaren izenean *



MAITE ARTABE

Areatzako Emakume Foroko partaidea

Beti be aitaren izenean Bazterretxea abizeneko emakume gazteak

Artetxe ahizpak euki zituen; euretako Kazintak Urkiri seme-alabak.

Urkirietako Leonorrek Artabe ahizpak.

Horreen artean nago ni eta nire alabak Etxebarria dira eta eurenak...

Izena eta irudiaren xixkatze horretan,

non gordeko dot nire amaren izena?

Gatxa da amaren leinua jarraitzea. Ama parteko abizenak norbere memoria heltzean dan lekuraino heltzean dira. Loturea be makaltxoagoa da eurekaz. Identifikatuago sentitzen gara lehenengo abizen bera daukien personakaz, errezago ezagutzen dogulako.

Ausardia baneu, adoretsua banintz Dolores Julianok 90eko hamarkadan egindako proposamena egingo neuke: andrak amaren abizena eroatea eta gizonak aitarena. Hori proposatzen eban andra leinuak sortzeako gizonenak be euren horretan jarraitzen eban bitartean.

Sinbolikoki be agerpen hori pisuzkoa izan daiteke andren gizarteko funtzioai jagokienez. Holan abizena ezeze gure arteko jakintza transmisinoa bermatzeko.

Sasoi baten gure amen munduagaz eten beharra aldarrikatu genduan kultura horretako esteriotipo matxista eta jakintza tradizionalaren misoginiagaz apurtzearen. Oraingo perspektibeagaz arriskutsua, injustua eta gogorregia iruditzen jata. Ez dago aurrera egitea lortzean dauan gisa-talderik bere aurrekoakaz daukan loturearen oinarria apurtzen badau.

Historian generazino baktaxa kate-begi bat da eta generazino batetik bestera transmisino papela egin behar dogu eta begi esanguratsuak gara androk. Ikasi eta aportau doguna, besteak

beste, giza-harremanak ulertze-ko beste modu bat da; egia zer dan interpretetako beste modu bat, alkarrizketarako joera dauana, parte hartzaileagoa. Gure jakintzak konbibentziaren praktika berezira lotuta dagoz, jakintza askoren legitimidadea onartzen dabe. Joera dogmatikotik urrunago dagoz. Ez dogu gustuko arau abstraktua. Gurago dogu arau hori erlatibizau erlazino personalen neurriara. Jakintza hori andren arteko erlazinoetatik transmititzen da jokabide eta eredu bidez. Bide informaletik doa, beraz, transmisio hori. Podere informal hori gizarte informaletan zan eraginkorra. Baina orain aldatu egin dira jokoaren arauak: lehen baino gizarte hierarkizau eta esklusibistagoan bizi gara.

Androk hor egoten ikasi beharko dogu baina ez daigun bazterrean itxi gure aurrekoen esperientzia; espezialistak dira eta alkarrizketan, eretxi desbardinak onartzen, dibersidadean biziten.

Hori guztiori pentsau beharra daukagu eta ez ikuspegi akademikotik, oso ikuspegi maskulinizaua izan da eta: konbibentzia eta eguneroko esperientziaren ikuspegitik baino.

Kontua da, hortaz, pentsetako modua mantentidu eta transmitidutea.

Horretarako agozko tradiziotik jatorkun gure ama-amamen jakintzari eustea da bidea, memorian geratu daitezcan andren arteko sekretuak, eta sekretuotako bat da gizartean andrak izan daben funzioaren pisu eta garrantzia, ziur nago.

Atrebentzia eta kemenaren faltan idatzirik itxi gura dot proposamena. Agozko tradizino hori bezain berreskuragaitza gertatu ez daiten. Bide batez agertu daitela nire leinua amaren eta alaben izenean espiritu santuaren garaietaraino.

* Testu hau Dolores Julianoren leinuen gaineko ponentzia baten laburpen-moldaketea da.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzon gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Grezia

Lagun bat daukat bi bider interbeniduta, bi bider erreskaututa: greziarra da eta han egiten dau behar, Atenasen, Portugalgo banku baten. Horrek seguru emoten deutsala bizitzari begiratzeko halako patxada bat, sano helenoa dan ironia puntu bategaz esaten eustan-eta telefonotik lasai egoteko, laster geu be izango garala Alemania.

"Zergatik halako geldotasuna Senatuan?", galdetzen eban Konstantinos Kavafisek be Erdaldunak poeman. "Zergatik jezarrita daude senadoreak eta ez dute legerik ematen? Zergatik gure enperadorea hain goiz jaiki da, eta jezarrita dago hiriaren aterik handiengan, tro-noaren gainean, arranditsu, koroa jantzita?". Erdaldunak egun helduko diralako, eta holakoak liluratuten dabezalako erdaldunak.

nak.

Etxon egiten dabe lur jotako herrialdeak. Geuk be bai: etxon Eskoziak zer egingo, etxon MCC-ren urteko emoitzei, etxon Greba Orokorari. Poemak be badino: erdaldunak helduko diralakoan dagoz esperoan agintariak, eta "zeintzu legeak emanen dituzte bada senadoreek? Erdaldunak heltzen direnean emanen dituzte". Eta "zergatik gure kontsul biek eta pretoreek irten dute egun beren toga gorri, bordatuekin? Zergatik amatistekin josiriko beso uztaiak jantzi dituzte, eta eraztunak esmeralda distiratsu eta argitsuekin?".

Eta erdaldunak ez baletoz? Eta geure etorkizunaren jabe geu bagina?

"Zergatik hasten da bat-batean artegatasun eta ezinegon hau? Zergatik hustutzen dira bizkor kale eta plazak, eta denak itzultzen dira beren etxetara oso pentsati?".

Ilundu daualako eta erdaldunak ez diralako etorri, eta batzuk mugetatik heldu dira, eta esan dabe erdaldunak jadanik ez dagoala. Kavafisek ondo deskribiduten dau ezinegon hori, ebatzi behararena: "Eta orain zer gertatuko zaigu erdaldunik gabe? Jende hauek zelanbaiteko konponbidea ziren".

ZERTZEAN



EGOITZ FERNANDEZ

Zerura begira

Zerura begira,
oroitzapen asko ageri dira,
herriari eginiko lehen kantua,
emondako lehen musua.

Zerura begira,
buruak egiten dit bira,
erantzunik gabeko mila galdera,
irteera bakarreko 646 sarrera.

Gaur, zerura begira jarri naiz,
gauean ...izarrak
lainoen artean ...negarrak
...iluntasunak
...dardarak.

Askatasun haize berriak
ekartzen ditu lainoen irriak
dardara, algara bihurtu
negarrak ez baitzan makurtu
iluntasuna lagun
BIDEA EGIN DEZAGUN

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Sorodidatea eta Andren II. Mendi Martxea

Marcela Lagardek, Mexikoko antropologo feministeak asmatu eban sorodidate kontzeptua, andren artean emoten dan eta hain beharrezkoa dan "ahiztatasuna" eta alkartasuna adierazoteko. Hobeto ulertzeko hona hemen bere berbak: "amistad entre mujeres diferentes y pares, cómplices que se proponen trabajar, crear y convencer, que se encuentran y reconocen en el feminismo, para vivir la vida con un sentido profundamente libertario, para construir un mundo diferente". Izan be Arratiako Andren II. Mendi Martxan, neurri baten hori izan zan Belatxikietarako bidean aldapan gora aldapan behera andren artean somatzen zana.

I. Mendi Martxan Areatzan 25 andra alkartu ginan, aurten Diman 35 eta datorren urtean batek daki... Urtero herri desbardin baten antolatze asmoa daukagu eta duda barik, aukera parebakoa beste herrietako andrak ezagutzeko. Animo dano!

Sara Gutierrez Egileor
Areatzako Emakume Foroa



 Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Martiaren 29ko greba orokorrerako hiru deialdi

Lan erreformea erretiretako hilaren 29an greba orokorra egiteko deialdia egin dabe hainbat sindikatu eta gizarte eragilek.

Erredakzioa

Greba eta mobilizazioak beharrezkoak diralakoan bat dotoz sindikatu guztiak baina hiru deialdi dagoz horretarako. Izan be, alde batetik joango dira sindikatu abertzaleak, bestetik CCOO eta UGT eta hirugarren batetik CNT.

Mariano Raxoiren gobernuak defizita eta zor publikoa murrizteko egin dauan lan erreformearen aurrean beharginak erantzuna emon behar dabela uste dabe sindikatu eta gizarte eragileak. Izan be, erreformeak "langabezia gehiago, pobrezia handiagoa, gizarte laguntza gutxiago eta diru gutxiago biltzea" ekarriko dau. Eta horrek guztiak kolapso ekonomikoko bat eragingo dauala adierazo eban Adolfo Muñozek, ELAko idazkari nagusiak. Gainera, kapitalak eta patronalak gura

daben eskubide bako gizarte baterantza eroaten gaituala azaldu eban Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiak.

Sindikatu abertzaleak, ELA, LAB, ESK, EILAS, CGT, EHNE eta Hiru sindikatuak, eta Hego Euskal Herriko 20 bat gizarte eragilek martiaren 29ko greba jentetsua eta zabala izatea eskatu dabe.

Beste deialdiak

UGT eta CCOO sindikatuak hilaren 29rako greba deialdia egin dabe estadian. Sindikatu honeek be "kalera urten behar dala" dinoe, lan erreforma honeri txarrespena adierazoteko. "Ongizate estadiari eta zerbitzu publikoai inoz egindako erasorik bortitzena da eta langabezia areagotuko dau" dino CCOOek. Horregaitik greba orokorrera deitu dabe, nahiz eta sindikatu



ELA sindikatuaren eskuorria.

abertzaleak batera ez joan.

Gauza bera gertatzen da CNT sindikatuagaz. Sindikatu anarkistek bere aldetik be, martiaren 29rako greba orokorrerako deia egin dau. Eta egun hori aukeratu dau "mobilizazioetan batasunaren aldeko apustua egitearren". Baina CNTk bere deialdi propioa egin dau, sindikatu honen arabera, "prensaren bidez" jakin ebalako greba orokorrerako deiaren barri. "Ondoren deialdiagaz bat egiteko konbitea luzatu jakun, ez dagoan bateratasun eta pluraltasun irudia emoteko asmoagaz".

Lan erreformeak dakarzan hainbat aldaketa

Lan erreformeak kalera errezago botatea ahalbideratzen dau. Honeri gehitzen badeutsaguz murrizketak (diru laguntzetan, hezkuntzan, osasun arloan, eta abar) ongizate estadia bertan behera itxi eta kapitalismo gordinenari bidea emoten deutso.

Hona hemen lan erreforma honen aldaketa batzuk:

- Lanetik botatea errezago eta merkeagoa da. Erreforma honen arabera, lanetik botateagaitik kalte-ordaina lan egindako urte bakoetako 20 eguneko da (orain arte 45 egun ziran).
- Enpresariak langileen soldatak murriztu ahal izango dabez, baita ordutegia eta egutegia (oporrak) aldatu be.
- Enpresariak hitzarmenean ez dagozan lanak exijidu ahal izango ditue, baita lekuz aldatzea be.
- Enpresariak kalean itxi ahal izango dabez langileak, azkenengo hiru hiruherrekoetan gutxiago irabazi edo saldu ezker. Administrazioan be erregulazio espedituea egin ahal izango da, baita langileak bota.
- Gaixorik egondakoan, enpresariak bota ahal izango dau langilea hile bitan 9 egunetan edo 4 hileetan 13 egunetan lanera ez bada joan justifikatuta egonda arren.
- Enpresa txikia bada, hitzarmen kolektibotik kanpo geratzen da behargina.
- Gazteai urtebeteko proba-kontratua egin dakikee...



LAB sindikatuaren kartela.

LEMOA

S.D. Lemonaren zorra erabakiorra aurrekontuak ez onartzeko

Erredakzioa

Bilduk aurkeztutako aurrekontuen proposamena atzera bota eben EAJ-PNVk eta PSEk Lemoan.

Hori dala eta, 2011ko aurrekontuak luzatuko dira, baina igaz alkatetzeara EAJ-PNVk eukan eta 2011ko aurrekontuak EAJ-PNVk egin zituanak dira.

Beraz, 2011 urteko aurrekontuak marketan dabe gehieneko gastua. Aurrekontu honeetan gastua 5.077.259 eurokoa da; alkatetzak proposatzen eban

aurrekontuak, barriz, 3.185.061 eurokoak.

Bilduk prensa ohar baten bidez jakinarazo dauanaren arabera "Lemoako Bilduko udal taldeak harridura handiz hartu dau alderdi bi honeen jarrera, ez dauka eta ezelango koherentziarik orain arte erakutsi izan daben jarrereagaz". Bildukoen esanetan, aurrekontuetako partida guztiak Udal Batzordeetan landu ziran, eta bertan "ezelango ekarpen egin barik egon da PNV hainbat hilabetez. Horrez gainera, aurrekontuak bere osotasunean lantzeako batzordeak be burutu dira eta hemen be isilik eta ekarpenik egin barik egon dira jeltzaleak. Hori holan izanda, harrigarria iruditzen jaku aurrekontuen inguruko bilkura baino lau egun lehenago EAJ-PNVk bere emendakinak aurkeztea" dinoe. Ha ta guzti be, emendakin batzuk onartu zirala eta ez dala oso koherentea, "emendakinak puntu batzuetan bakarrik eginda, eta emendakin batzuk onartutakoan aurrekontuak osotasunean ez onartzea". EAJ-PNVk, ezezko botoak emoteko arrazoia "negoziario-

rako borondaterik sentidu ez izana" dala dino Esti Latorre EAJ-PNVkoak. Izan be "guk 10 emendakin aurkeztu genduzan eta 2 baino ez ziran onartu" dino jeltzaleak.

S.D. Lemonaren zorra erabakiorra PSEren ezetzan

Hiru emendakin aurkeztu eutsezan PSEk Bilduko aurrekontuak, baina bat izan zan erabakiorra PSEk ezezko botoa emoteko: S.D. Lemoari 72.000 euroko diru partidea emotea, hain zuzen be. "S.D. Lemonari proiektu ekonomikoa eta kirol proiektua eskatu jakozan diru laguntzea emotea ala ez ebazteko. Zezeilan euren kaz batzartu ginan Bildukoak eta neu. Bagilerako 540.000 euroko zorra aurreikusten eben. Udal diru laguntzeagaz eta beste diru iturri batzukaz 400.000 eurotan ixtea espero eben eta nik galde-tu neutsen S.D. Lemonakoai ia 400.000 euroko zor horregaz zer egingo eben. Itauna ez eben erantzun" azaldu deutso BEGITU Unai Ortuzar PSEkoak.

Hori holan, Unai Ortuzarrek diru partida hori egon ezker be botoa kontrakoa izango zala ebatzi eban.



Lemoako udaletxea.

ZEBERIO

Udalak San Andolin ermitea ondasun publiko lez inmatrikulau dau

Erredakzioa

Gaur egun ludotekea eta dendea dan eraikina San Andolin eta San Roke ermitea izan zan sasoi baten. Dana dala, honen jabegoa inoz ez da eleizearena izan eta orain Udal inbentarioan zerrendatu dabe, Jabego erregistroan udalaren izenean inmatrikulau ostean.

"Kontuan izanda Udala behartuta dagoala, herri ondasunak ofizioz defendatzera, beharrezko urratsak egin dira San Andolin eta San Roke ermitea udal inbentarioan sartzeako eta, Lege Hipotekarioagaz bat eginez, Zeberio Udalaren izenean inmatrikulatze-ko ondasun publiko legez" dinoo udallexetik.

XVII. mendean, plazan *Hospital de pobres* eritxana egoan, eta han bertakoak otoi egiteko egin eben

ermitea hau. Agiritan agertzen da hau diru publikoagaz egin zala. "Ermitea Zeberioko auzotarrak eta udalak eregi eben otoi-tegi profano lez, eta ez eutsan Eleizeari ez-lango diru kosturik ekarri, Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxibategi historikoan gordeta dagozan dokumentuak adierazoten deuskuen legez". Mendeetan zehar, udalak dituan eskubideak ukatzen dituan udal akordioak ez dago.

2006an udalak konpondu eban ermitea eta ludotekea ipini eban bertan.

Erabilera kulturala eta soziala

Eraikinen jabego publikoak auzotarren erabilteko eskubideak bermatzen ditu, erabilera sozial zein kulturala emon ahal izateko eta interes partikularrak ekiditzeko. Holan, "udal lokalen erabilera az-

terzen gabiz. Baleiteke ludotekea lehengo eskola zaharrera pasetea eta horri beste erabilera bat emotea. Esate baterako, beheko solairuan erabilera anitzeko gela bat eta goiko geletan gazteentzako lokalak ipintea" azaldu deutso BEGURRI Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak.



San Andolin 40. hamarkadan.

DIMA

Martiaren 24an Arratiako "Gazte Egune"

Irati Urien

Urtero lez Arratiako Gazte Independentistak eskualde mailako "Gazte Egune" antolatuta dabe. Diman izango da aurten, hil honen 24an. "Euskal Herri gorrie, gazteok astindu herrie!" lelopean, egun osoko egitarau prestatu dabe gazteak. Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena da eta horren harira apirlean egingo dan gazte martxea be gogoratu gura dabe. Goizeko 11:00etan umeentzako olgetakaz hasiko da eguna, eta Zastaparren laguntza eukiko dabe. Ostean, pelota partiduakaz parodia bat egingo da. 12:00etan txupina botako dabe eta "Gazteok zer diogu?" murala egingo dabe bertaratutakoak. Bazkaria 14:00etan izango da, honen ostean bingoan jokatu dabe gazteak. 17:00etan herrien arteko desafioa ikusi ahal izango da. Txaranga-poteo-manifestazioa egingo da gero 19:30ean.

21:00etan kontzertuak hasiko dira: Barbi Turikos, Siroka, Exaixu, Arkada Social eta Zirkinik Bez. Honeek amaitu ostean ganera, Dimako Gaz-

tetxean talde gehiago egongo dira. Sarrerak 5 euro balio ditu aurrez (ohiko lekuetan egongo dira) eta 8 euro bertan erosi ezker.

Euskal Herri Gorrie, gazteok astindu herrie!

11etan Umeentzako jokuek, Zastaparrakaz
Pelota partiduek
Parodia: Agirre-olaizola eta Irujo-Barriola.
Epailea: Mikel Goñi

12etan Txupinazoa.
Ondoren, "Gazteok zer diogu?" Murala.

14etan Bazkarie. Ticketak ohiko lekuetan.
Bazkaldu ostean Bingoa.

17etan Herrien arteko desafioa.

19:30etan Txaranga-poteo-manie.

21etan kontzertuek
Sarrera: 5€ aurretik, bertan 8€
Bokatak gauean zehar

BARBI TURIKOS **EXAIXU**

SIROKA **ZIRKINIK BEZ!** **ARKADA SOCIAL**

Ostean kontzertuak gaztetxean

IRATI URIEN **500 ANI HIRI GARAI PENERA!**

ARRATIA

Hator Hona

Maialen Egileor

Hator Hona proiektuan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik dago apirilaren 20ra arte. 18 eta 30 urte bitarteko gazteak dago zuzenduta, eta Argentinan hamabostaldi luzea emoteko aukerea emoten dau. Euskerea, euskal jantzak, euskal musika, gastronomia edo eus-

kal kirolen inguruko ezagupenak euki ezker, emon ahal da izena.

Necocheako (Argentina) Euzko Etxea euskal etxean, 2004. urtean ipini zan martxan Hator Hona proiektua. Sano arrakastatsua izan da eta orain arte 55 gazte euskaldunek hartu dabe parte, euren artean 5 arratiarrek. Necochearaino biajea ordaindutea da egin beharreko bakarra. Garagarilaren 13tik abuztuaren 5era izango da egonaldia.

Informazio gehiagorako: www.hatorhona.blogspot.com eta hatorhona@gmail.com.

IGORRE

Beinat Anzola: "Igorreko zabortegia 2013an zarratu daiten beharrean gabiz"

Erredakzioa

"Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Igorreko Udalaren artean sinatutako akordioa betearazoko dau Igorreko Udalak" dino Beinat Anzola Igorreko alkateak. Izan be, 2008ko urriaren 20ko udalbatzaren osoko batzarraren udalak onartu eban zabortegia 2013ko abenduaren 31 baino lehen zarratutea eta Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoari onarpena emon eutsan.

Udal iturrien arabera, Igorreko Udala telefonoz ipini da hartu-emonetan Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldun-

diakaz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan euren hitzamen luzaketan ez da Igorre aitatzen eta Bizkaiko Foru Aldundiak dinonaren arabera, Igorreko zabortegia 2013an zarratuteko planteamentuagaz dabil beharrean.

Beinat Anzola Igorreko alkatearen esanetan "Igorreko zabortegia 2013an zarratuteko beharrean gabiz. Espero dogu, orain artean lez erakundeen arteko harreman onean oinarrituko dala aurrerantzeko bidea be".

1987. urtean martxan ipini zan Igorreko zabortegia eta 25.000 tona zabor tratetan ditu gaur egun.

IGORRE

CIE Automotivek % 46 gehiago irabazi dau 2011 urtean

Erredakzioa

Autogintzarako osagaiak fabrikatzen dituan CIE Automotive taldeak 60,6 milioe euro irabazi eban 2011n, 2010ean baino % 46 gehiago, "marka guztiak hautsiz" CIE Automotivek jakitera emon ebanaren arabera. Talde honek planta bat dauka Igoiren, CIE Tarabusi izeneko.

Ustiapenaren emoitza gordina (Ebitda) % 21 handitu dau, 234,1 milioe eurora heldu arte, eta 1.839,7

milioe euro fakturatu ditu, 2010ean baino %15,6 gehiago.

Emoitza parebako honek, "Europaren errekupezinoari esker, suspertzen ari diran herrialdeetan dagozalako eta Dominion integrazino plana betetzeagaitik" lortu dira CIE Automotive-koen arabera.

Komunikadu baten bidez, konpainiako presidentek, Anton Praderak, "enprearen egoera finantziario ona dala eta, taldea proiektuak ikertzen dabilela, enpresa gehiago sartzeko taldean" adierazo eban.



LEMOA

Cementos Lemonaren EEEn kontrako manifestazioa Lemoan

Erredakzioa

Martiaren 9an, Cementos Lemonak aurkeztutako Enplegua Erreguleta Espedientearen kontrako protesta 200 persona inguruk egin eban, ELA eta LAB sindikatuen arabera. Enpresek indarrean ipini gura dauan espediente onartuten bada, honek 46 beharginen kontratuak etengo ditu 161 egunetan, Jabi Amorrortu LAB-eko Cementos Lemonako ordezkariak BEGURI adierazo deusaren arabera.

Hasiera baten, erregulazio espedienteak eragingo zituen kontratuak 123 baziran be "46ra bazu doguz"

dino Amorrortuk eta orain arte, akordiorik lortu ez arren, enpresa kometeak espero dau espedientearen ganeko epaia egon baino lehen lortuko dabela akordioa. "Beharginen aldetik esfortzu handia eginda, sano eskeintza ona ipini dogu mahai gainean. Uste dogu enpreseari interes-auko jakola" dino LABekoak.

Cementos Lemona zarratuteko arriskuan

Cementos Portland taldeak fabrika bi zarratuko dituala adierazo dau. Bata Kataluniako izango da eta bestea zehaztu barik dago, baina Lemoako izan daiteke.



Martiaren 9an Lemoan egindako manifestazioaren irudia.

LEMOA

Karabie Gaztetxean egitarau feministea prestatu dabe

Erredakzioa

"Martiak 8an betaurreko moreak jantzi genduzan harriketarrok, eta martia morez koloreztatu dogu" dinoe Harriketarrak Gazte Asanbladakoak. Eta horretarako hiru ekitaldi prestatu dabez martiaren bigarren hamabostaldirako.

Martiaren 16an genero tailerra egingo dabe Karabie Gaztetxean "generoa, sexualidadea, parekidetasuna edota emakumeon burrukearen inguruan ikasi ta hausnartuteko lekua

zabaldu gura dogulako" dinoe Gazte-tekoak.

Egitaraua

Martiak 16,
19:30ean, Genero tailerra.

Martiak 22,
20:00etan, *Mi sexualidad es una creación artística* bideo emonaldia.

Martiak 30,
20:30ean, Ain_1 taldearen kontzertua (musika, jantzea, poesia...).



ARRATIA

Patxi Arraibi Los Rios-era misinolari joan zan Lemoako abadea hil da

Erredakzioa

Martiaren 5ean izan ziran Patxi Arraibiren hileta eleizkizunak Lemoako parrokan. 1948. urtean, zortzi misinolari joan ziran Los Rios-era (Ekuador) misino bat zabaltzera. Tartean hiru arratiar: Zeanuriko Maximo Gisasola eta Eusebi Ozerinjaregi eta Lemoako Frantzisko Arraibi. Hiru honeen artean bizirik egoan bakararra Arraibi zan.

Hileta eleizkizunetan Bilboko gotzaia egon zan eta Lemoako abesbatzak kantau eban.

Arraibi Afrikako misinoetan be aitzindari izan zan eta Angolan egon zan. Han, Santa Mariaren ordena sortu eban.

Juan Mari Uriarte Donostiako gotzai ohia Igorren

Martiaren 23an izango da berbaldia Igorreko parroko lokaletan, arrastiko 19:00etan. Juan Mari Uriartek Bakea eta adiskididetzea Euskal Herrian gai hartuta gogoetea egingo dau "giro itzaropentsu honetan" dinoe antolatzaileak. Aznar Espainiako presidentea zala bitartekari lanak egin zituan ETA eta gobernuaren artean Uriartek.

ARRATIA

Mankomunidadeak gazte politikea kudeatzea ebatzi dau

Erredakzioa

Baliabideen optimizazioa eta eraginkortasuna bilatuz, bikoiztasunak eta beharrezkoak ez diran gastuak saihesteko, Arratiako Udala Mankomunitateak (AUM) artezean berak kudeatuko daua gazte politikea ebatzi eban martiaren 1ean izandako batzarrean. Horretarako, eskualdeko batzorde bat sortzeako aukerea aztertuko da, "udal guztiak modu bateratu eta koordinatuan egin daien lan esparru horretan".

AUMren eretxian, beharrezkoa da gazte politikak modu bateratuan kudeatzea, "Arratiako gazteen artean beste esparru batzuetatik -Institutua, Zulaibar, kirol erakundeak...- sortzean hasi diran loturak mantenduteko eta holan, eskualdearen izaera eta etorkizuna bermatzeko. Ekintza horreek beste maila batzuetako instituzioak koordinatu beharko dira, bai eta EU-DEL, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza eta Europar Batasunaren moduko beste erakunde batzuetatik bultzatutako ekimenakaz" azaldu eban mankomunidadeak.

Gazteen parte-hartze prozesuak martxan ipinteko eskatzen dabe

Eskualdeko batzorde bat sortzeako aukerea aztertuko dala dinoe, uda-

lak eta mankomunidadeak modu bateratu eta koordinatuan egin daien lan esparru horretan. "Ekimenaren helburua beste sail batzuetarako finkatu dan bide bera jarraitzea da; esate baterako, bardintasunaren, gizarte zerbitzuen, iraunkortasunaren, drogamenpekotasunen edo enpleguaren arloan egin dan lez. Era berean, proposamenean, eskualdeko gazteen egoera eza-gutzeko mekanismoak aktibetako eta parte-hartze prozesuak martxan ipinteko".

Arratiako Mankomunitateko Gobernu Batzordeak gehiengo onartu eban proposamen hau martiaren 1ean, PNV-EAJren esku dagozan udalak aurkeztuta.

Bilduk kudeatutako udalerriak ez dabe parte hartuko

Bildu ados dago Arratiako udalak baliabideen optimizazioa bilatu behar izateagaz eta eraginkortasuna topeteagaz sinergiak aprobetxatzea eta alkarlanean behar egingez. Baina behetik gorako politika parte hartzailea aldarrikatzen dau gazteentzako eta "EAJ-PNVk planteatu dauana goitik beherakoa da, gazteentzako plan bat egingez gazteakaz behar egin barik". Horregaitik, Bilduk kudeatutako udalerriak ez dabe gazte plan honetan parte hartuko.

ARRATIA

Zugatzak landatzeko kanpaina hasi da

Erredakzioa

Aurtengo kanpaineri hasiera ofiziala martiaren 7an emon bajakon be, gure eremuko herriak hasita egozan Zugatz Eguna ospatuten. Zugatz egunak ez dauka datarik eta udalerri bakotzak ondo jatorkon egunean eta ondo jatorkon moduan landatzen ditu zugatz horreek. Aurten, Foru Aldundiak 29.100 zugatz banandu ditu, 92 udalerrian landatuteko.

Lemoak aurea hartu eutsan Foru Aldundiko kanpaineri eta zezeilaren 25ean 13 zugatz landatu zituen lemoazarrak San Antolinen. Igorren be landatu dabez Foru Aldundiak banandutako hostozabalak eta martiaren 10ean landatu zituen Urbieta futbol zelaiaren ondoan. 240 landare egozan eta sobrau ziranak herriarrak eroan zituen euren kabuz lan-

datzeko. Ubiden, be antzera egiten dabe. Martiaren 5ean jaso zituen udaletxean Aldundiak banandutako pago, haretx eta kerezioak eta herriarrak gure dabenean hartu eta landatzen dabiz, egun zehatza ipini barik. Zeberion eskolako ikasleak landatu zituen zugatzak martiaren 9an.

Hilaren 17an Zeanurin ospatuko dabe Zugatz eguna. Bakotzak bere aturra hartuta, Saldropora joango dira hostozabalak landatutera. Hara joateko 09:30ean urtengo dau autobusak Txoko Sagamaren aurrean. Artean hurrengo egunean, 10:00etan batuko dira herriarrak plazan eta Murga mendian landatuko dabez 50 landare inguru.

Areatzan 24an ospatuko dabe. 10:00eta parkean batu eta Pagomakurrera joango dira zugatzok landatzera.

Hostazabalai bultzadea

Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak Zugatz Eguna aprobetxetan dau espezie hostozabalen balioa indartuteko, batez be bertako espezieena. Izan be, bananduten dituan zugatzak haretzak, pagoak, urkiak, astigarrak, lizarrak eta kerezioak dira.

Foru erakundeak jakinarazo dau urtean guztira 350.000 zugatz landatzen dituala, herri onurako mendien 300 hektareatan. Beste 1.100 hektareako zugatzak jabetza pribadua daukie eta horreetan 1.500.000 zugatz barri landatu dira Nekazaritza sailaren lankidetzegaz.



Zugatzak.

ANDRA BASERRITARREN LEHEN TOPAKETAK

Andra baserritar gazteak nekazaritza iraunkorraren alde egiten dabe

Martiaren 7 eta 8an Euskal Herriko Andra Baserritarren Lehenengo Topaketak egin ziran Artean. Bertan, 70 andra inguru batu ziran euren jakinduria eta teknologia konpartiduteko. EHNE sindikatuko Etxalde nekazaritza iraunkorrerako mobimentuak antolatu zituan jardunaldiok.

Erredakzioa

Arteko Ekomuseoan batu ziran baserritarrak. Ainhoa Iturbek egin eban aurkezpena Etxalderen helburua Euskal Herrian elikadura subirotasuna lortzea dala eta testuinguru horretan antolatu ziralako jardunaldiak esanez. "Elikadura burujabetza eskubide bat da, bardintasunari ezinbestez lotuta dagoana. Horregaitik martiaren 8aren inguruan egitea ebatzi genduan EHNE" esan eban Iturbek.

Jardunaldi honeetan, hemen eta munduan baserritarrak erabilten dabezan tekniken barri emon eban Etxaldekoak. Izan be, antolatzaileak orain dala gitxi Kuban egindako antzeko topaketa batzuetan egon ziran eta Kuban, Nikaraguan eta ertameriketako hainbat herrialdetan erabilten dabezan ikasitako teknikak azaldu zituen Artean, baserrirako erabilgarri diralakoan. Afrikatik be egon zan ekarpena, Mozambikeko nekazariak egon ziran eta euren jakinduria konpartiduten. "Orain dala urte bi, Munduko Emakumeen Martxeagaz Iparraldera joan ginan, Euskal Herriatik mundura urten genduan, aurten, alderantziz egin dogu: mundutik Euskal Herrira, hain zuzen be" azaldu eban Iturbek.

Topaketa honeetan, 70 base-

rritar inguruk hartu eban parte. "Gipuzkoatik hamabost inguru etorri ziran eta Arabatik be nahikotxo. Nafarroatik hiru eta Iparraldekoak, hasiera baten etortekoak baziran be, azkenean ez ziran heldu" azaldu deutso BEGIturi Arantza Arrien EHNEkoak.

Bederatzi tailer

Jakinduria eta teknologia konpartiduteko bederatzi tailer antolatu zituen Etxaldekoak. Bakotxak ordu erdi irauten eban, parte hartzaileak danetatik pasetako aukerea euki eien. Lehenengo egunean, baserritarrak bostetatik zazpietara eukien horretarako tartea eta hurrengoan 10:00etatik 12:00etara. Ez zan holan gertatu baina. "Martiaren 8an Ekomuseora bisitea egiten hasi ginan eta gero ardo dastaketa egon zan. Ekintza honek lar luzatu ziran eta tailerrak jarrai-

Arteko Ekomuseoan

Euskal Herriko andra

baserritarrak batu

ziran euren jakinduria

eta teknologia

konpartiduteko



Arteko Ekomuseoan batu ziran baserritarrak.

tuteko denporarik ez genduan izan. Honeri jarraipena emoteko eta danetatik pasau ahal izateko, beste topaketa batzuk antolatzeko geratu ginan" azaldu deutso BEGIturi Irune Fernandez topaketa honeetako partaideetako batek. Irune Fernandez jatorriz bizkaitarra da, baina Etxalderen dauka Leku Eder izeneko baserria. Han, "batez be autokontsumorako, apur bat danetik" ekoizten dau.

Topaketok jarraipena eukiko dabela konfirmatu dau Arriek. "Ez dakigu zelan antolatuko dogun. Akaso geu mobiduko gara leku batetik eta bestetik, baina geure erronka urte honetan zehar honeri jarraipena emotea da".

Tailerrok honek izan ziran: lurraren ezagutzea, txertoak, mikroorganismoak, *campesina campesina* programea, motorbako tresneria, humus, trukea, gu geure ekoizpenaren berme eta materiala.

Europako diru laguntzak ez jakiez andrai heltzean

Lehenengo egunean, zazpi eta erdietan, Isabel de Gonzalok Europako diru laguntzak andrak gitxiago jasoten dabezala (% 32) eta jasoten dabezanak diru gitxiagoak dirala esan eban. De Gonzalok EHUrako egin dauan ikerketaren arabera, diru guztiaren % 23 bakarrik heltzean





Isabel de Gonzaloren hitzaldia Igorreko Kultur Etxean.

da andren eskuetara.

"Ehun mila euro baino gehiagoko diru laguntzak jasoten dabenak % 7 dira andrazkoak (% 93 gizonak). Mila euro baino gutxiagoko diru laguntzak jasoten dabenen artean, % 33 dira andrak" gehitu eban hizlariak.

Hau holan izateko arrazoi asko aitatu zituan De Gonzalok. Alde batetik, "andren beharra ez da ikusten, askotan "familia laguntza" moduan agertzen da, lurra- ren jabetza gizonena (% 71) da eta. Eta andren izenean dagozan ustiategiak txikerragoak dira. Izan be Europak bultzatzen dauan

baserritarren lana baloretako aukerea dala ondorioztatu eban.

Berbaldi honeek Igorreko Kultur Etxeko erakusketa aretoan izan ziran. Han, Kuba eta Euskal Herriko andra baserritarren egunerokotasuna kontetan dauan argazki erakusketea egon zan eta oraindino be badago.

Nekazaritza iraunkorra

Nekazaritza iraunkorraren aldeko urtenbideak landu ahal izateko eta baserritarrak alkarregaz antolatu eta bidea zabaltzeko sortu zan Etxalde. Euskal Herrian elikadura burujabetza lortutea dauka

helburu.

"Elikadura burujabetza herri guztien eskubidea da. Bertako personak elikatzea da lehenengo beharra... Eskubide hori gura dogu Euskal Herrian izatea, menpekotasun barik. Ez dogu babesten espertzinoak bultzatzen dituan nekazaritza politika, munduko laborari guztiak errespetau behar doguz eta espertzino agresibo hori debekatu behar da" esan eban Mixel Berhokoirgoinek Etxalderen lehenengo Asanbladan.

"Elikadura ez bada lekuko nekazaritzan oinarritzen, gosetea



Mozambikeko nekazariak be izan ziran Arratiako topaketetan.

eredua –lur zati handiak eta nekazaritza intensibo- merkaturako, neoliberal eta kapitalista da. Andrak, barriz, ustipen txiker eta dibersifikauaren aldeko apostua egiten dabe".

Ondoren, Leticia Urretabizkaiak andra baserritarren gaineko beste ikerketa lan baten barri emon eban. Ikerketa honetan, andra baserritarrai egindako alkarizketen bidez euren kezak jaso zituan Urretabizkaiak, eta elikadura subiranotasuna andra

handituko da. Elikadura burujabetzak nekazaritza iraunkorra suposatzen dau eta ez da bardina leku guztietan. Lurraldeari lotutako laborantza ugaria behar dogu. Lurraldea jagon gura badogu nekazaritza berezia behar dogu, ez uniformizaua. Nekazaritza iraunkorra ekonomia soziala, justua, natura errespetau eta laborari asko daukana da" defnidu eban.

Euskal Herriko andra baserritarrak egin daben apostua, hain juxtu.

Etxalderen helburua

Euskal Herrian elikadura subiranotasuna lortzea da



Lurraren ezagutzea izeneko tailerra.

FUTBOLA

"Harrotasunez Lemoa. Danok batera koparen bila"

Hori da Federazio Kopako bueltako partidurako, eguaztena 14, 19:00etan Arlonagusian, aukeratu daben leloa.

Maialen Egileor

Ceutan bana egin ostean, Lemoaztar guztien animoak behar dabez finalurrekoa pasau eta bigarren urtez jarraian finala jokatuteko. Irabazi ezker (gure edizioa zarratzerako orduan partidua jokatu barik egoan), gainera, 90.000 euro jasoko dabez.

Holan bada, diru sarrera bakarenetakoa eta denporaldiko poz

bakarra izango da, ligan gauzak ezin diralako txarrago joan. Saillapeneko azken postuan dagoz 15 puntugaz eta salbazinoa gero eta urrunago daukie, 15 puntura hain zuzen be eta 10 jardunaldi bakarrik falta dira. Hori bai, halanda be jokalariek ez dabe burua bajatu eta burukan jarraituten dabe. Horren erakusle da azken partiduan 0-1 bakarrik galdu ebela Mirandes liderraren kontra

eta bardinduteko aukerea be euki ebela.

Arratiako mutilak, hain zuzen be, emoitza horregaz amaitu eben azken partidua; 0-1 egin eben Fruizen eta lehenengo dira 56 puntugaz. Arratiako neskek mutilak baino puntu bat gehiago daukie, Leioako Emakumeak taldeari 2-1 irabazi ostean eta lider izaten jarraituten dabe.

RUGBYA

Igoera faserako aukerak murriztuz doaz**Ainhoa Duñabeitia**

Denporaldi ederra egin eben arren igoera fase hau, aldatz gora ipini jakie Zekorrai eta igoteko aukerak gero eta urrunago ikusten dabez. Halanda be, amore emon barik igoteko burukan jarraituten dabe Arratiakoak.

Martiaren 3an Getxon jokatu eben partidua irabazi eben Zekorrak. Ederto jokatu eben partidua osoa eta zaleen laguntasuna izan eben. Partidua amaitu ostean zaleakana hurreratu ziran eta txalotu egin ebezan.

Baina hurrengo astegoienean ez eben hain pozik amaitu. Irabazteko aukera guztiak zituen

arratiarrak baina partiduko azken minutuan poza joan jakien zekorrai. Elorrio izan eben aurkari Zekorrak. Aste batzuk lehenago Elorrioren jokatu eben arratiarrak eta azkenenengo momentuan Elorriokoak irabazi egin eben. Martiaren 10ean be bardin gertatu zan. Partidua bukatzean egoanean, 22-21 adierazoten eban markagailuak Arratiakoan alde, baina azken minutuan falta adierazo eban epaileak Elorrioren mesede eginez. Falta sartu eta partidua irabazi eben Durangaldekoak. Azken emoitzea Arratiako Zekorrak 22- Elorrio 23.

Hurrengo partidua martiaren 18an izango dabe zekorrak, Bilbon.

PELOTEA

Pelota eskolakoak Bizkaia eta GRABN txapelketetan**Erredakzioa**

Arratia-Nerbioi txapelketea jokatu ostean, ez dira egonean geratu pelota eskolakoak. Bizkaia E1 eta B1 txapelketea, Arratia-Nerbioiren bigarren buelta, GRABN txapelketea eta trinkete txapelketea jokatuko dabez orain Arratiako pelotari gazteak.

Areatzako pelota eskolakoak Bizkaia E1 eta B1 txapelketea jokatuko dabe eta horretarako sailkatu ez diranak "B2 txapelketea, Arratia-Nerbioi

txapelketearen bigarren buelta modukoa dana" jokatuko dabela azaldu

**Pelotea pelotariaren eskuan.**

deutso BEGURI Areatzako pelota eskolakoak.

Igorreko eskolak, pelotari bi daukaz GRABN txapelketan, Izei Gomez eta Aitor Zilaurren. Bizkaia E1n Aitor Lejarza dago eta umetxo kategorian bikote bat daukie. Besteak, Arratia-Nerbioiren bigarren buelta jokatuten dabiz.

Dimako Txumuluxetakoak, berriz, Bizkaia txapelketan hiru talde daukie: E1 Gaztetxoak, E2 Umeak eta B1 Gaztetxoak. B2 edo Arratia-Nerbioiren bigarren buelta horretan, 6 talde dagoz Txumuluxetakoak "GRABN txapelketan frontoi eta trinketean be pelotariak daukaguz" azaldu dau Txumuluxetako ardura-dunak.

**Zekorrak Universidad Bilbaoren kontra jokatutako partiduan.**

Umeen moda 0-20 urte

- Boboli
- Ray
- Aranda
- AKR
- Guisabir
- Arandiga
- Grandale
- Leiz
- Hassana

sein

LEHENENAKO AGORRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balantzi: A1, A, B1, B

Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
94140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vieska.com

AKESOLO, S.A.

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRBITZUAK

Garbe, 29 Telefon: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAI

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Auriaga 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAI
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

AKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTRUKTAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURUTAN

Bilbo Arana, 5 Tfnua: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ekin s.a.

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturizt barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDIA



Alex Txikon.

Txikonen espedizinokideak desagertu egin dira

Erredakzinoa

Gerfried Göschl, Cedric Hählen eta Nissar Hussein, Txikonen espedizinokideak desagertu egin dira tontorrerako bidean joiazala eta bizirik agertuko diran esperantzarik ez daukie han dagozan mendizaleak. Lemoakoak El Correon dinoanaren arabera, berari ez jakon iruditu tontorrari ekiteko "ez eguna eta ez plana", eta hurrengo egunetan eurekaz batzea pentsau eban. Orduan, Tamara Stys-egaz egin eban topo. Mendizale hau bakarrik egoan eta beragaz geratu zan.

Göschl, Hählen eta Hussein hegoaldeetik joan ziran gora. Txikon eta poloniar espedizinoko Tamara Stys ekialdetik saiatu ziran hurrengo egunean. Baina "hotzagaitik izozketa handiak izateko arriskua egoala" ikusita, tontorra ez egitea ebatzi eban

Lemoakoak. Txikonek martiaren 9an, barikuan, ikusi zituan azkenengoz bere kideak 7.700 m.tara. Egun horretan gaueko hamarretarako edo, hirugarren kanpalekuan bueltan egon behar ziran tontorra egin ostean. Baina harrezkerotik ez dira agertu eta temperatura horreekaz, 8.000 m.tara hotzez hilteko posibilidad handiak dagoz. "Gau horretan Tamara eta biok 1.000 m. beherago gengoan eta juxtu-juxtu agoantau genduan gaua" dino Alex Txikon mendizale lemoaztarrak El Correon.

Izozketak artatzen

Txikonek ezin izan dau Gasherbrum I-en tontorra zapaldu. Izozketak ditu behatzen eta sudurrean eta hau idazten dogun momentuan 5.000m.tara dagoan kanpalekuan dago, izozketok sendatuten.

Sanjosetako bertso saioa
Martxoak 17, 19:00etan

Andoni Egaña
Maialen Lujanbio
Jon Maia
Igor Elortza

Igorreko Lasarte aretoan

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tel: 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

expert **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

ARA OTZ
Lanetan O Jabetzen!

Tel: 94 631 60 06 • email: info@aramotz.com
Punto Ugarana 2. et. - ADRI 2.era - (Euzkadi) www.aramotz.com

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

ARRATIAKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airekondizio sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Tutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 37
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 616
48140 Igorre Bizkaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Btxilergoak, Hezkuntza zikloak

LIBURUA

Angel Larreak Arratia inguruko ipuinak liburua idatzi dau

"Geure Berbategie" proiektutik sortutako lana Ediciones Beta argitaletxeak aterako dau hile amaieran.

Erredakzioa

Angel Larrea Arratia Institutuko irakasleak idatzi barri dauan liburua abiapuntua orain dala 14 urte ikastetxe horretan sortutako "Geure Berbategie" proiektua da. Egileak dinoan lez, berbategiaren oinarrian inguruko herrietako berba, istorio eta jakituria batzeako ikasleak egindako eskolarako lanak dagoz.

Orain arte hainbat produktu urten dira bertatik; besteak beste, *Arratia inguruko hiztegia* edota *Umean zentzune, etxean entzune* musika CDa. Baina ondino urteerarik euki ez dauan hainbat material dago ikastetxean pilatuta. Larrea material hori aztertzen ibili da azkeneko urte bietan, eta arakatutakoaren emoitza topau dituan luzera desbardineko 40 ipuin izan dira; danak Arratiako eta inguruko herrietako mitoak lotutakoak.

Ipuinak aukeratu eta argitaratze-

ko atondu ez eze, beste hiru atal gehiagogaz osatu dau edizinoan Larreak. Batetik, *Arratiako euskal idazle aitziandariak* liburuan dagozan mitologiagaz lotutako testuak osatzen dabean atala dago; bestetik, etnografia-ikertzaile ezagunak geure artean bildutako mitologia lanena —euron artean Aita Barandiaran, Resurrección M. Azkue eta Juan Manuel Etxebarria—, eta azkenengo atalean, Larreak berak libururako beren-beregi idatzi dauzan gai mitologikoko ipuinak dagoz.

Geure inguruan sorgin, lamina, Gizotxo edota Txilibistroren

inguruan jasotako lan ezagun eta ezezagunak batu dauz idazle zezenuriztarrek *Arratia inguruko ipuinak* lanean. Egileak dino liburu honeguz "Geure Berbategie" proiektuan egindako lan isila prestijiau gura izan dauala, bai eta eskualdeko etxeetan bildu dan jakituriaren barri emon; izan be, ondino inongo argitalpenetan idatzi barik egon diran hainbat bersino eta pasarte dagoz bertan jasota.

Liburuko testu guztiak bizkaiera literarioan idatzi dira, eta testuak laguntzen dabezan irudiak lanire Atxutegik egin dauz.



Arratia inguruko ipuinak liburua azala.

LITERATUREA

Julen Gabiria: "Bizkaieraz pijaman legez sentiduten naz, eroso"**Erredakzioa**

Bizkai euskeran eroso sentiduten dala esan eban Julen Gabiria idazleak eta hori Pedro Antonio Añibarri zor deusala. Gabiriak, Bi-2 Euskal Idazleen Elkarte eta Bizkaiko Foru Aldundiaren programaren barruan, Pedro Antonio Añibarrioren gaineko berbaldia emon eban Arratia Institutuan martiaren 5ean.

Julen Gabiriak (Galdakao, 1973) Pedro Antonio Añibarri (Areatza 1748-Zarautz 1830) aurkeztu eutsen Institutuko ikasleai. Gabiriaren esanetan, Añibarri 17 liburu idatzi zituan, baina liburuok, "gaur egungo

irakurleentzat ez dira bape be erakargarriak". Izan be, eleizgizona zan Añibarri eta bere lanak debozino liburuak eta itzulpenak dira batez be. Areatzakoaren lanik ezagunena *Escu liburua, eta berean eguneango cristiñaucereguiñac* izan zala esan eban galdakaoztarrak.

"Zergaitik heldu da guregana, orduan? Bere ekarpen handiena bizkaiera estandar, arautu edo jasoaren oinarriak ipintea izan zan" eta hori, sano inportantea dala esan eban hizlariak "hizkuntzak nortasuna egiten dau-lako" eta "idazteak errealidadeari formea emoten deusalako". Nortasuna eregitean, hizkuntze-

agaz eroso sentidutearen garrantzia azpimarratu eban Gabiriak.

Inguruko idazle "klasikoa" eta idazle modernoa

Berbaldi hau Bi-2 programearen barruan dago eta programa honen bidez idazle bizkaitar bi ipinten dira hartu-emonetan. "Bata zaharra, "klasikoa", euskera batuaren aurrekoa, eta bizkaitarrez idatzi ebana; bestea, barriz, gaurkoa. Idazle "zaharra" ezagutzeko bidea gaur egungo idazlea izango da; haren begietatik ikusten dabe ikasleak zer egiten eban eta zergaitik merezidu dauan berreskuratzea" azaldu dabe EIEkoak.

BBK BERTSO SARIKETEIA

Arratiako bertsolari gazteak BBK Sariketako sailkapen fasean aurrera egin barik gelditu dira**Irati Urien**

Martiaren 6an Arratia eta Durangaldearen arteko norgehiagokeagaz gozatu eben Igorreko Lasarte aretora hurreratu ziran 200 bat ikaslek. Etxekoak 393,5 puntu egin eben arren; Durangaldekoak 405,5 puntugaz irabazi eutseen. Ondoko bertsolariak abestu eben Arratiatik: 18 urtera artean Ander Gerraiketxebarriak, Aitor Asuak eta

Malen Amenabarrek; 19-24 urte bitartekoetan, Irati Bernaolak, Irati Astondoak eta Illart Gumuziok. Bestalde, Zallan burututako saioan, Enkarterri eta Busturialdeko bertsolari gazteak ibilli ziran kantuan eta azkenengo honeek irabazi eben lehiaketean. Gauzak holan, amaitu dira Bertsolari Gazteen XX. BBK Sariketako sailkapen-faseko saioak. Aurrera egin dabena Durangaldea eta Busturialdea izan dira.

LABURBIRA

Zortzi metraje labur ikusgai Areatza eta Igorren**Erredakzioa**

Laburmira ikus-entzunezko zirkuituaren 9. edizinoan Donostian aurkeztu zan zezeilaren 28an. Zirkuituak 8 ikus-entzunezko labur eskeiniko ditu eta Euskal Herriko 30 herri eta uritan egongo dira ikusgai, baita Madril, Paris eta Londresen be. Arratiako emonaldiak Ganoraz Arratiako euskera alkarteak antolatutakoak, martiaren 23an Areatzan, Udal Aretuan eta 30ean Igorren, Lasarte Aretuan izango dira, 20:00etan.

Saio bakotzak 85 minutuko iraupena izango dau. Alde bateatik, 1961eko *Aberria* filma eskeiniko da. Gotzon Elortzak zuzendutako dokumentala euskeraz egindako lehenengoetakoa da. Aberriaren inguruko hausnarketea aurkeztuten dau, garaiko euskal kulturearen ikur ziran Balendin Enbeita eta Jon Lopategi bertsolarien eta Víctor Olaeta jantzariaren eskutik. Bestetik, lehenengoz Laburbiran, euskeraz ez dan film bat be sartu da programazioan: Xoxe Diazen *Instalación*. Galizian eta galegoz egindako lana da hau. Edizino honetatik aurrera, Laburbirak urtero eskeiniko dau egoera gitxituan dagoan hizkuntzaren baten sortutako lan bat, euskeraz azpidatzia.

Lan bi honeekaz batera, Topaguneak sortutako Benito Ansoa Bekakaz 2011n ekoiztutako lehengo bi lanak be sartu dira programazioan: Joseba Uberuagaren *Izena duena* 3D animaziozko ipuin laburra, eta Paul Urkijo eta David Zabalaren *Ohe azpiko zera*, gerra zibilean girotutako istorioa. Beste lau lanak Maialen Sarasuaren *Hemen nago*, Jon Garañoren *Urrezko eratzuna*, Gregorio Muroren *Zeinek gehiago iraun* eta Revolta Permanent taldearen *Kantuka* bideoklipa izango dira.



Laburbira.



MUSIKA ESKOLA

Ganbara orkestra eta koro kontzertua Artean

Erredakzioa

Arratiako Musika Eskolearen 25. urteurrenaren ekitaldien barruan, hilaren 25ean eguerdiko 12:00etan kontzertu bat egongo da Arteako Eleizan. Belen Madariagaren zuzendaritzapean, *Los tonos humanos* Ganbara orkestra eta koroak Dieterich Buxtehude (1637-1707) musikagilearen *Membra Jesu Nostris* oratorioa jo eta abestuko dabe.

"Oratorioa zapi kantata txikirek osotuten dabe eta gurutzan dagoan Kristoren gorputz zatia eskeinuta dagoz (oinak, eskuak, arpegia, eta abar). Koroak, bakar-lariak, zati instrumentalak... danetik dago obra eder honetan" azaldu deutso BEGITURI Víctor Domínguez Arratiako Musika Eskolako zuzendariak.

Los tonos humanos ganbara koroa eta orkestra

Buxtehuderen oratorioan bakarlariak, Belen Madariaga sopranoa, Montse Bertal altoa, Josu Luis Madariaga tenora eta Jose Maria Gonzalez baritonoa izango dira.

BERTSOLARITZEA

Sanjoseetako bertso saioa goi mailako 4 bertsolarigaz

Erredakzioa

Lau bertsolari izango dira aurten kantari Igorren bertso saioari bizi-tasun handiagoa emon gurean. Ohitureari jarraituz saio itzelagaz gozatutako aukera parebakoa egongo da martiaren 17an, zapatuz, arrastiko 19:00etan Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Lau bertsolari honek izango dira bertan; Andoni Egaña zarauztarra, Maialen Lujanbio hernaniarra, Igor Elortza durangarra eta Jon Maia zumaiztarra.



Sanjoseetako kartela.

HAMABOSTALDIA

Hamabost eta bi eskeiniko deustie kultureari Igorren



Ipuin Musikala eskeiniko dabe Arratiako Musika Eskolako ikasleak.

Erredakzioa

Hilaren erdian hasita eta martia amaitu arte hamabost ekitaldi antolatu ditue Arratia Institutuak eta Igorreko Udalak kultur hamabostaldiaren barruan. Zinea, literatura, musikea, argazki erakusketea, kirola, lehiaketak... danetik egongo da, batez be ikasleentzat baina ez bakarrik. Izan be, herrira begira lehio bat be badauka Igorreko kultura hamabostaldiak.

Holan, publiko zabalari zuzendutako lehenengo ekitaldia, hilaren 16ko *Katuska* zarzulea izango da eta hurrengo egunean sanjoseetako bertso saioa.

Hilaren 19an, arrastiko 19:30ean Lasarte Aretoan, Ahaztuak taldeko Martxelo Alvarezek "Lemoatxako borrokaren 75. urteurrena" izeneko berbaldia emongo dau.

Publiko zabalari zuzendutako hurrengo ekitaldia hilaren 24an izango da. Egun horretan, Lasarte Aretoan, 17:00etan, Arratiako Musika Eskoleak Ipuin Musikala interpretatuko dau. Hurrengo ekitaldia beste musika saio bat izango da; hilaren 28an, 12:00etan Ikasleak Musikari izeneko.

Martiaren 30ean, barriz, zinearen txanda izango da eta film laburrak ikusteko aukerea egongo da Lasarte Aretoan arrastiko zortziretan.

Amaieran telefonoz grabatuko bideo lehiaketaren sari banaketea izango da.

Martiaren 31n, Mihiluze txapelketea izango da Lasarte Aretoan arrastiko 18:00etan. Apirilaren 1ean ipiniko deutso amaierera hamabostaldi luze honeri Txan magoak, bere ikuskizuna arrastiko seiretan eskeiniz.

Institutuko ikasleentzat hainbat berbaldi

Institutuan, barriz, eta hamabostaldiari hasierara emoteko, hilaren 19an, Pedro Eliasek "Zentsura kantagintzan: "Kantu eta kantari debekatua" hartuko dau berbagai goizean. Gero, egun horretan bertan, Martxelo Alvarezek "Lemoatxako borrokaren 75. urteurrena" izeneko berbaldia emongo dau.

Hurrengo egunean, Angel Larrearen txanda izango da "Munduren azkena" izeneko berbaldiagaz. Mateo Pagazaurtundarena, barriz, 21ean "Arratiako ipuinak kontetan" izenekoagaz.

Irakasleen ostean, gazteak izango dira hizlari: Itziar Zabala eskalatazileak argazkiak lagunduko dau bere berbaldia eta *Egunon Printzesa!* pelikulea ikusi aurretik Ibai Puja eta Claudia Santosek aurkezpen berbalditxoak egingo dabe.

Hilaren 27an, Arratiako Ipuinen gaineko beste saio bat egongo da eta Iker Yurrebasok "Bidairen esanahia" izeneko berbaldia emongo dau.

Martiaren 30ean, Mihiluze lehiaketaren ikasleen kanporaketak izango dira.

DUNBA

Aratusteak

Inazio Zubizarretako 6. mailako ikasleak

Urduri ta artega ia egun guztian mila ensaio eginda pozik arestian eguna etorri zen hain modu ez-tian batzuk txinan geundenez asko eguzkian ze ondo ostondtu ginen mozorro azpian.

Haur hezkuntzakoena betiko antzean zoragarria izan zen frontoira heltzean begietan partxea ezpata atzean piratak itsasoan ta Portu ertzean gero murgildu ziren gure bihotzean.

Lehenengo ziklokoek ze soinu ozena trumoi euri inizitu eguzki gardena poztasunez bustita utzi zuten dena haien astrapalea izan zen onena fenomeno egon zen fenomenoena!!!

Oilarak kukurruku eta kamarek, klip!!! gizakia bizi da ospakizunetik jarraitu nahi genuke halako bidetik gurasoei eskerrak bihotz bihotzetik gure ikuskizunaz gozatzegaitik!!!!



Ikasleak mozorroagaz.

Bigarren ziklokoek ze saio osoa berriro hegan zebilen bakearen usoa *Beatle*sekin mugituz hanka ta besoa Ms Robinson gero musika gozoa... iraganera eman genuen pausoa.

Hirugarren zikloak hasita jarduna mundua bihurtu zen danon erresuma bakero, eskimala indio, zalduna... eskoziar txinatarrak edo joalduna aniztasuna izan zen aberastasuna!!!!

Aurkezleak ederto gero tartetan zelan moldatu ziren mikrofono bueltan ze grazi oinez eta ze doinu berbetan euren berba jolasez olgetan olgetan aurkezpena izan zen bikaina benetan.



AGENDEA

MARTIAK 16

AREATZA

22:30ean kontzertuak, Eskean (Arratiko R&R) + Malditos bastardos Gaztebtean.

BEDIA

18:00etan, udaltxe ondoan, hilaren 18ra arte, eski urteera Ganguren antolatuta.

LEMOA

19:30ean, Genero tailera Karabie Gaztebtean.

MARTIAK 17

IGORRE

19:00etan, San Josetako bertso saioa Lasarte Aretoan. Elortza, Lujanbio, Maia eta Egaña.

LEMOA

Lemoako Bolo taldearen txapelketa. Gisetzan.

ZEANURI

09:30ean, autobusa Txoko Sagarna aurrean. Zugatz landaketea Saldropon eta hamaiketako.

MARTIAK 18

ARTEA

10:00etan, plazan. Zugatz landaketea Murgan.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Malutabo*.

19:30ean, zinea *El Topo* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 19

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, Sanjuanetako frontenis txapelketan parte hartzeako izen emotea liburutegian apirilaren 3ra arte.

IGORRE

19:30ean, Martxelo Alvarezen berbaldia "Lemoabako borrokaren 75. urteurren" Lasarten.

MARTIAK 21

LEMOA

18:00etatik 22:00etara, Erlezaintzaren hastapen ikastaroa: "Eztiaren gela". Elizondoko Kultur Gunean. Izen emotea: 94 630 07 69 (Amaia).

MARTIAK 22

LEMOA

Uraren Nazioarteko Eguna ludotekan.

20:00etan, *Mi sexualidad es una creación artística* bideo emonaldia Karabie Gaztebtean.

MARTIAK 23

BEDIA

17:30ean, Olate Arrarteren berbaldia "Bediako basoak ezagutu" liburutegian.

IGORRE

19:00etan berbaldia Igorreko parrokiako lokaletan. Juan Mari Uriartek Bakea eta adiskididetzea Euskal Herrian gai hartuta gogoetea egingo dau.

MARTIAK 24

AREATZA

Zugatz Eguna. 10:00etan parkean batu, zugatz landaketea Pagomakurren eta ostein hamaiketako.

BEDIA

14:00etan, kantu bazkaria frontoian.

DIMA

Independentisten "Gazte Egune".

IGORRE

17:00etan, Arratiako Musika Eskolakoak Ipuin Musikatua Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak 5. zeharkaldia Bedia-Lemoa.

Lemoako Bolo taldearen txapelketa Lemoan.

19:00etan, luzaketak Ganzabalen lokaletan.

ZEANURI

Joko Alaik antolatuta sagardotegira urteera.

MARTIAK 25

ARTEA

08:30ean, Urrekoabara urteera.

12:00etan, Los Tonos Humanos garbata orkestra eta koroak kontzertua eleizan.

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea, *Fucsiq, la minijura*.

19:30ean, zinea *La Dama de Hierro* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urteera. Oña-Frias. Mesa de Oña (1.202 m).

19:00etan, *Argia* dokumentala Kultur Gunean.

ZEBERIO

09:30ean plazan eta 09:45ean Ermitabarain bueltatxo egiteko heritik. Austari Mendi Taldea.

MARTIAK 28

IGORRE

12:00etan, Ikasleak Musikari kontzertua Lasarte



Katuska zarzuelea hilaren 16an 20:00etan Lasarte Aretoan

Katuska zarzuelea, Errusiako Iraultzaren sasoian, printzesa errusiarra zala ez ekian neskaren eta sobietar komisario baten arteko amodiozko istorioa da, Bartzelonako Teatro Victorial-eant estreinau zan 1931n, eta harrezkeroztik, ikusleen gogokoenetarikoen artean dago. Zarzuelearen autoreak, Pablo Sorozabal (1897-1988) donostiarra, XX. mendeko estaduko musikako obra sinfoniko eta genero lirikoko obren autorerik aitagarrienetakoak, zaletu guztiak gogoan dituen xarmaz eta edertasunaz betetako melodiak itxi deuskuz. Bilboko Masa Coral del Ensanche antzetzuko dau.

Aretoan.

MARTIAK 30

IGORRE

19:00etan, hileko azken barikua, presoen aldeko kontzertuzinoa.

20:00etan, film laburren emonaldia Lasarten.

LEMOA

20:30ean, kontzertua Ain_1 taldeagaz (musika,

jantzea, poesia...) Karabie Gaztebtean.

MARTIAK 31

ARANTZAZU

Bildu kultur batzordeak antolatuta Hemaniko Elorriaga

sagardotegira urteera. Tikitak Monteronean eta

hemiko tabernan eskuratu hilaren 22ra arte.

IGORRE

18:00etan, Mihiluze txapelketa Lasarte Aretoan.

22:00etan zinea, *J. Edgar* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, sagardotegira

urteera Usurbil. Andatza (562 m).

Lemoako Bolo taldearen txapelketa Boroan.

APRILAK 1

IGORRE

18:00etan Txan Magoa Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

SENEGAL ASTE SANTUAN

Pedaleatzen Afrika Beltza ezagutzeko. Alforjakaz zikloturismoan zaleak diranentzako. Martiaren 31tik apirilaren 15era. Eguneko 45 km. Programa aktiboak 1.250 €. Hegaldia norberaren kontura. Info+: xauenbidaiak@gmail.com edo www.xauenbidaiak.com.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxe beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

ETXEKO BEHARRAK ETA ZAINTZAK

Etxe beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dodaz. Kotxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko orduetegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Katuska* antzezlanerako.

Aiala Landajo (Igorre)
Gotzone Amuriza (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La Dama de Hierro* filmarako.


Leire Amuriza (Otxandio)
Lander Sagarna (Areatza)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Medikamentua. 2.- Oxigenoa. Alfabeto grekoko letra. 3.- Galbide, okermin. Boroa. 4.- Zinegotzigo. Musika notea. 5.- Erreminta. 6.- Edabe garbi. Pikatxoia. 7.- Bokala. Landare berde. 8.- Bare. Bokala. 9.- Ausardi.

GOITIK BEHERA

1.- Landarea emaldu ezkereraz hazi bihurtzen da. Bigarren letra. 2.- Letra bat. Baratzeko landare. Barioa. 3.- Mantsu. Ogirako otzarea. 4.- Auzoko. 5.- Uretan hil. Aldi. 6.- Biritan, korotz. Zeruka. Bokala. 7.- Bokala. Satsa, ongarria.




Topau zazpi ontzi desbardinaren izenak.

A	P	A	R	T	U	K	O	A	S
Z	I	T	Z	I	A	D	U	L	O
A	T	O	A	J	M	O	R	A	A
B	X	O	R	T	I	A	K	E	N
P	E	G	A	R	T	I	B	U	I
O	R	A	G	E	O	H	O	J	S
L	R	U	I	Z	B	P	A	X	I
A	A	D	A	T	X	A	G	E	O
M	E	R	I	S	P	O	S	A	T
O	M	E	T	O	K	A	L	U	N
K	E	S	K	A	T	I	L	U	A
G	E	K	U	L	I	D	E	B	A
J	O	R	T	A	M	I	K	A	L
O	R	A	T	E	L	O	X	T	D
S	T	U	M	B	O	Z	A	G	H

AKI MI KO

Aitziber



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskolaraz zain ordoraz

Garbe, 10 - 48140 Igone (Bizkaia)
telefonoa 94 631 54 31, faxa 94 631 70 83
e-posta: urroa@beuskolaz.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurriera egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94

**Esposizinoa eta
fabrika Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

begitu
amata ubide zerbeto

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

Ordie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.
48140 Igone (Bizkaia) Tlfnoa: 94 632 64 79

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**Bar Restaurante
Montero**

Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

RUTH LINAZA

"Aurten lortu doguna pagetako ez dago dirurik, berbarik be ez daukat"

Ruth Linaza Badaiotz sokatira taldeko kidea da. Eskozian jokatu dan Munduko Txapelketatik etorri barri da eta ez esku hutsik ganera. Zidarrezko medailea bakarrik ez, urregorizkoa be ekarri dau Euskal Herrirantza taldeak. Sekulako irribarreagaz eta ostondu ezineko emozinoagaz igarri dau BEGITUk. Zelan ez, eskuak erakusteko eskatu deusagu eta bistan da kailu faltan ez dagoala Lemoaztar gaztea.

Irati Urien

Glasgow-n izan zan eta irabazi egin genduan ha be.

Nerbiorik?

(Putz egiten dau) lehenengo egunean ez. Ia-ia badakizu galduko dozula edo ez dozula irabaziko. Ahal danik eta ondoen egiten ahal eginduten zara baina nerbio puntu hori badaukazu. Gero behin hasi ezker pasau egiten dira nerbioak. Lehenengo egunean konfiantza hartu neban. Aurkariak baino 33 kilo gitxiagagaz jokatu arren sufriduarazo egin geuntsen eta bigarren egin genduan. Ikusi genduan kapazak ginala. Gero demostrau egin behar da, ez da erreza baina burrukan egin behar da.

Munduko potenteenari edo potenteentako bateri lekua kentzea lortu dozue orduan?

Bai. Inok ez deutse aurre egin Taipeiikoai. Danean arrasau egin dabe eta begiratu: Potentzia handi bateri irabazteko gai izan gara, historikoa da.

Zein da sokatirearen egoerea gurean?

Txarra, sano txarra. Orokorrean txarra, baina batez be neskentzat. Txina, Japon, Taipei... moduko lekuetan harrobi itzela dago. Baina European eta Euskal Herrian oso gitxi gara sokatiran. Hasi nintzanetik gaur egun arte kopuruak beherantza egin

dau gainera, igarri-igarrian. Orduan 7 bat neska talde egongo ginan eta aurten bost talde egon gara: Arbizukoak (Sakana), Ibarakoak, Berriozarrekoak, Artziniegakoak eta geu. Egoerea zein dan ikusita asko da. Halanda be, ez dot uste indartuko danik. Hedabideen aldetik ez da bape be bultzatuten. Aurten pilo bat igarri da. Teleberrin edo Gaur Egunen egun baten baino ez zan atera, Munduko Txapelketea Euskal Herriko talde batek irabazi dauala esan eben bakarrik. Beste urte batzuetan EITB, Euskadi Irratiko kazetariren bat edo nonor joan izan da, aurten inor be ez. Munduko Txapelketea izan da eta hemengo taldeak, neska eta mutilen artean, 9 domina ekarri doguz eta jenteak ez daki horren barri.

Euskal Herriko txapelketak be beste horrenbeste. Inoiz agertu ezker gainera, ordu betetik 55 minutu mutilen gainekoa izaten da. **Zer pasetan jatzu burutik tiratuten zabizen momentuan?**

Bestea zelan dagoan, besteai begira egoten naz. Lehen ez. Lehen danak min egiten eustan eta pentsetan neban "amaitu daitela hau". Inportantea da pausua danak batera emotea. Igarri egiten da. Gero, pausua kantetan joaten zara, bakotxak bere zaratea edo dana dalakoa dauka. Guk "otz" eskoirako eta "etz" ezkererako erabilten dogu. Nik erritmo bat eroan eta pausua kantetan dot.

Sokatiralari batek perfil bat bete behar dau?

Ez. Ez dauka zertan. Kontua da daukazun indarragaz teknikea apliketea. Pisuak ostera badauka bere garrantzia. Kategoria bi dagoz: 540 eta 500 kilo. 500 kilokoan persona bakotxak 62,5 kilo pisatu behar dauz batz bestea eta hori ez da erreza. Askok badaukiez 62 kilo baina beste batzuk igual gehiago; orduan, serio parau eta pisua galdu behar da.

Zelakoak dira entrenamenduak?

"Taldeak aurrera egin artean segiduko dot, indarrak akabau arte"



tuak?

Sokan urrietan hasten gara baina ordurako pesak, mendira joan, galapan... egiten dogu. Ni Lemoan bizi nazanez nire kontura egiten dot. Gasteizen espezifikoa egite-rako orduan, polea sistema bategaz ibiltzen gara; pisuan plantxa batzuk altxau eta gora eta behera tiraldien simulazioak egiten. Aurten astean hiru bider joan izan naz entrenetan, 2 ordu egunean. Tenporadea urri lehenengoan hasi eta mundialagaz amaituten da. Baina mundiala urte birik izaten danez, mundiala ez dagoan urtean martira arte luzatuten da, 6 hilabete inguru. Laburra da, neguko kirola da. Udan lurrean egiten dabe baina hor ez dogu tiratuten.

Zelako giroa daukazue Badaiotzen?

Oso ona. Gehienok urte asko daroaguz taldean eta ondo ezetuten dogu alkar. Gure artean laguntasun handia dago. Azkenean hori emoitzen islatzen da. Munduko talderik onena izan arren ez badago hartu-emon onik ez dago emoitzarik, argi eta garbi daukat hori. Oso harro nago taldeko jenteagaz eta entrenatzaile itzela daukagu.

Zer aportetan deustu sokatireak?

Asko. Lagunarte itzel bat eta kirol ikuspuntutik konpetizinoan maila gorenean egoteko aukerea. Aurten lortu doguna pagetako ez dago inon dirurik, berbarik be ez daukat. Emozionau egiten naz oraindino.

Arratiako neskak badabiz rugby-an, futbole... animauko zintzatekez bailaran اندrazkoan sokatira talde bat aurrera eroaten?

Nire ekipoa faltako balitz hasiko nintzateke. Baina ez da erreza. Neskak kirola egiten ipintea gaxa da, gitxienez 10 bat behar dira taldea osotuteko. Gainera, sokatirea exijentzia handiko kirola da. Rugbyan, futbole... badabiz baina beti neska falteagaz eta kirol gehienetan hori pasetan da. Nire taldeak aurrera segidu ezkerro ni bertan parauko nintzateke, Badaiotzen. Hori argi daukat ze konpetizino aldetik maila altua daukagu. Nazinoarteko mailan konpetiduten dogu. Baina nire laguntzea behar izatekotan edo nik ahal izango baneu, bihar edo etzi, posible da. Ni prest. Hori bai, fitxajeak Gasteizera etorri gura badabe, danak animetan dodaz.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48942 Artea